

EBAZPEN-AKTA

Bilbao EDITA 2025

ARGITALPEN-PROIEKTUAK HAUTATZEKO DEIALDIA

Balorazio Batzordea 2025ko abenduaren 22an bildu zen, 12:30etan, *Bilbao Edita 2025* argitalpen-proiektuak hautatzeko deialdira epe eta forma egokian aurkeztutako 11 proiektuetatik guztira 5 proiektu hautatzeko, deialdiaren oinarrietan ezarritakoari jarraiturik. Hautaketa kategoriatan hauetan egin zen:

- A kategoriatan: 3.000 euroko 3 proiektu
- B kategoriatan: 6.000 euroko 2 proiektu

María Ángel Manovel Ibañez-ek aurkeztutako proiektua, *Cortisol, acetilcolina y otras metáforas / Kortisola, azetilkolina eta hainbat metáfora* izenekoa, ez da deialdian onartua izan, ez baitu deialdiaren oinarrietako 5. eta 7. puntuetako kaudimena egiaztatu.

Batzordeko kideak Gonzalo Olabarria Villota (Arriaga Antzokiko ABko presidentea), Joseba Iñaki López de Aguilera Díaz (Bilboko Udaleko Kulturako zuzendaria) eta Begoña Escibano Mendia (Musika-Música, BAS eta Gau Zuriko zuzendaria) izan dira, eta bilkurako idazkaria Ane Toyos Elorriaga (Kultura eta Gobernantza Saileko Aurrekontuaren Kontrola eta Kalitateko Negoziatuko burua).

Proiektuak hautatzeko, adierazle eta irizpide hauek ebaluatu ditu Balorazio Batzordeak:

- Kalitatea, interesa, bideragarritasuna, proiektuaren originaltasuna, egilearen ibilbidea: 27 puntu, gehienez.
- Liburuaren egilea Bilbon erroldatuta egotea proiektua aurkezteko den egunean: 10 puntu, gehienez.
- Liburuaren edukia Bilbori buruzkoa edo uriarekin lotura zuzena duten gaien buruzkoa izatea: 10 puntu, gehienez.
- Aldi berean paperezko eta formatu digitaleko argitalpena izatea: 3 puntu
- Euskararen erabilera sustatzen laguntzea: 10 puntu gehienez, honela banaturik:
 - % 50 euskaraz eta % 50 gaztelaniaz diren liburu elebidunak: 5 puntu.
 - Euskara hutsezko liburuak: 10 puntu.

Balorazio Batzordeak kategoria bakoitzerako hautatutako proiektuak hauek dira:

- **A KATEGORIA**
 - BILBAO. FIEBRE Y VENENO – Ediciones Beta III Milenio SL
 - HISTORIAS DEPORTIVAS DE BILBAO - Incobi Diseño, Marketing y Publicidad SL
 - DEL CORAZÓN CANSADO – Ediciones El Gallo de Oro SLU
- **B KATEGORIA**
 - FIESTA Y REBELDÍA – HISTORIA ORAL DEL ROCK RADICAL VASCO – Last Tour Liburuak, S.L.
 - MARI-AGUIRRE – Bukinda S.L.U.

Era berean, Balorazio Batzordeak, hautatutako proiekturen bat ezin izango dela egin aurreikusita, kategoria bakoitzean ordezeko hauek proposatu ditu:

- **A KATEGORIA**
 - BILBAO ILUSTRADO – Ediciones El Gallo de Oro SLU
- **B KATEGORIA**
 - LA VIDA OCULTA DE ADOLFO GUIARD – Muelle de Uribitarte Editores, S.L.

Eta jasota gera dadin, akta hau egin da Bilbon, 2025ko abenduaren 22an.

Gonzalo Olabarria Villota jauna
Arriaga Antzokiko ABko presidentea

Iñaki Lopez de Aguilera jauna
Bilboko Udaleko Kulturako zuzendaria

Begoña Escribano Mendia andrea
Musika-Músicako, BASeko eta Gau Zuriko zuzendaria

Ane Toyos Elorriaga andrea
Kultura eta Gobernantza Saileko
Aurrekontuaren Kontrolleko eta Kalitateko Negoziatuko burua